

KALITATE POLITIKARI BURUZKO ADIERAZPENA

BIEKAPAK, industria-prozesuen bidezko profil metalikoen fabrikazioan espezializatuta dagoenak, adierazi nahi du enpresaren zuzendaritzak *Kalitatea Kudeatzeko Politika* irmoa eratzeko, zabaltzeko, ezartzeko eta zaintzeko konpromiso estrategikoa duela, eta politika horren ardatza printzipio hauek izango direla::

BEZEROAREN ASEBETZEA

Bezeroek beren funtzionamenduari, jardunari, legeei eta araudiei dagokienez dituzten baldintzak ezagutzeko eta bete egingo direla bermatzeko mekanismoak sortu.

ARAUDIEKIKO EGOKITZAPENA

Indarrean dauden araudi eta legeria aplikagarriak ezagutu, eta prozesuak araudi horiek bete daitezen egokitu.

PROZESUETAN OINARRITURIKO KUDEAKETA

Prozesuetan, haien kudeaketan eta interakzioetan oinarrituriko ikuspegia ezarri, etengabe hobetzeko eta bezero nahiz kolaboratzaileentzako balioa sortzeko.

BALIOA SORTU

Barne-kolaboratzaile (giza taldea eta bazkide parte-hartzaileak) eta kanpo-kolaboratzaile (bezeroak, hornitzaileak eta ingurunea) guztientzako balioa sortu, horrela enpresak berarentzako balioa ere sor dezan.

BALIABIDEAK

Kalitate politikak ezarri eta etengabe hobetuko direla bermatzeko beharrezko baliabideak eman.

Oiartzun, 2023ko apirilaren 1ean.



Ramón Albisu
Zuzendari Nagusia



Koldo Laguardia
Kudeatzailea